

Zinema, eraberrituta 15 hilabete barru

Lobiano Kultur Gune inguruko eraikinak egungo behar eta estetikara egokitu dira azkeneko urteetan. Zinema, berriz, bere horretan mantendu da, herriko lagun batzuek orain dela urte piloia eraiki eta gero, eta dagoeneko aldaketa batzuk egitea beharrezkoa zirudien. Butaka berriak ipintzea, esaterako, behar beharrezkoa zen, baina horretaz gain, elementu gehienak aldatzea erabaki du Udalak, akustika mantenduz.

Obra hauen bitartez, 3 helburu nagusi lortuko dira. Alde batetik, inguruko eraikinekin bat etorriko da, hau da, Musika Eskola, Liburutegi, Lobiano eta Haurtzaindegia estetik berdin hartuko du (kolorea, diseinua...). Honetaz gain, sarbidea helbarrituentzako egokituko da eta Zelaieta kalean egon beharrean, Iparragirre kalean kokatuko da. Kale hau, gainera, semipeatonalizatzeko asmoa

du Udalak, Goienkalen egiten ari den bezala.

Bestalde, butaka gunea erabat aldatuko da eta jarlekuak handiagoak eta erosoagoak izango dira. Hori lortzeko, jarleku kopurua 622tik 520ra jeitsiko da eta girotze, elektrizitate eta argi instalazioak ere guztiz berrituko dira. Eszenatokiaren kutxa handitu egingo da eta altuera gehiago emango zaio, lehen mailako antzeztan ahal izateko. Kutxa horren goiko alde azpiegitura berriaren ikurrik adierazgarriena izango da, argia izango duelako, herriko hainbat lekutik ikusgai egongo delako eta Udalak dionenez, bertan programazioa ikusteko aukera egongo delako.

Hala eta guztiz ere hainbat gauza mantendu egingo dira, Zinemaren ezaugarri izan direlako urteetan zehar: anfiteatroaren estruktura (akustika mantentzeko), paretetan dauden oskolak, egurrezko barandilla...



Aurrekontuak

Gaur egungo sarbideko eskailera inguruan, entsaio-etarako lokalak, bilera gelak... ipiniko dira. Zinemaren izena ere aldatzeko asmoa du Udalak, nahiz eta oraindik izen berria ez duen aukeratu eta horretaz gain, kafetegia ere izango du barruan.

Zinema itxita dago dago-

neko eta obrak Antzibar enpresak egingo ditu. Hauen aurrekontua 2,6 milioikoa izango da gutxi gora behera eta diru kopuru honen zati bat lortzeko, Kultura Ministerioari, Eusko Jaurlaritzari eta Bizkaiko Foru Aldundiari laguntza eskatu dio Udalak. 15 hilabete barru, Zinema berria zabalik egon beharko litzateke.




**ERA GUZTIETAKO MUTUA
ETA ASEGURUEKIN
KONTZERTATUA**

ERREHABILITAZIO ETA KONTSULTA ZENTRUA

- FISIOTERAPIA
- 3. ADINEKO MANTENIMENDUA
- ESFORTZU PROBAK
- KONTSULTA ETA ERREKONOSIMENDU MEDIKOAK

- ODOL ATERATZE ZENTROA, EGUN BEREAN ERANTZUNA JASOZ
- MASAJE TERAPEUTIKOA - KIROL MASAJEAK
- URGENTZIAK

Diputazio Etorbidea 8-10 48 260 ERMUA • Tel. 943 17 21 12 - 943 17 21 16
Faxa: 943 17 21 12 • e-maila: indartu@euskalnet.net



ELEKTRAGAILUENTZAKO ZERBITZU TEKNIKOAK

EGANA
ALDAGAILUAK

GARBIGAILUAK - SUKALDEAK - HOZKAILUAK
LEHORGAILUAK ETA BEROGAILU ELEKTRIKOAK

DIPUTAZIOA 7 # TLF. 943 17 66 08 # ERMUA
BIDEBARRIETA 33 # TLF. 943 70 28 33 # EIBAR



- | | |
|----------------------|-------------|
| - Akordeoia | - Klarineta |
| - Biolina | - Panderoa |
| - Biolontxelo | - Perkusioa |
| - Bonbardino | - Pianoa |
| - Flauta | - Saxofoia |
| - Kantua | - Tikitrixa |
| - Gitarra | - Tronboia |
| - Gitarra elektrikoa | - Tronpet |
| - Gitarra baxua | - Txistua |
| - Lengoia musikala | |

Tel. 943 17 12 98 / 943 17 18 00 • albokamusikaeskola@hotmail.com